

Gure proiektuak aniztasun funtzional oro dutenen segregazioarekin amaitzea du helburu, non edozein gaztek aisialdi ezberdin baten bitartez harremanak sortzeko aukera izango duen. Proiektua planteatu genuenean, Durangaldean gazteen ingurune soziala sustatzen zuen proiekturik ez zegoela konturatu ginen. Ekimen gehienek segregazioari aurre egin beharrean segregazio egoera indartu egiten dute.

Gure ikuspuntutik pertsona guztiok dugu aniztasun funtzionala, izan ere, denok ditugu gaitasun eta gabezia ezberdinak. Dena den, pertsona multzo handi baten gaitasun eta gabeziak partekatuak direnez, normaltasuna\* sortzen da bertan. Aitzitik, normaltasun\* horretatik irtetzen diren pertsonak baztertuta geratzen dira. Gure iritziz, normaltasun\* hori faltsua denez, hitz hau asteriko batekin idazten dugu, inbentzio sozial bat dela deritzogu eta.


Gure taldeak egoera honekiko kontzientzia hartuta errealitate bi hauek bateratzen dituen aisialdia sortzea erabaki genuen: gazteen artean harreman anitzak sortzeko, sentsibilizazioa sustatzeko, beraien sozializazio prozesua aberasteko eta aukera berriak zabaltzeko.

Proiektua Durangaldean kokatuko dugunez, euskaraz eginiko aisialdirako espazioak beharrezkoak direlakoan gaude. Gaur egun euskararen erabilpena geroz eta txikiagoa da, izan ere “2017ko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa”-ren arabera Durangon %22,7 soilik jarduten dute euskaraz. Durangaldeko gazteek euskaraz jarduteko dituzten espazioak urriak dira, are gehiago aisialdirako. Hori dela eta, gure oinarrietako bat euskararen erabilera sustatzea izango da.

[https://www.durango-euskaraz.eus/fitxategiak/fckeditor/file/aurkezpena\\_durango\\_2017\(1\).pdf](https://www.durango-euskaraz.eus/fitxategiak/fckeditor/file/aurkezpena_durango_2017(1).pdf)

### 3. Emaidza nagusiak: Datu orokorra

3. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. Durango, 2017 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Durangoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2017.

Gure aisialdiak naturarekin harremana eta talde lana uztarturko du, horretarako ekintza berritzaileak aurrera eramanez, hala nola, taxidermia, makrame, kirol anitzak eta abar. Gure iritziz, gaur egungo gazteriak, mobilaren erabilera desegoki bat eramaten du aurrera eta, ondorioz, naturarekin izango duten kontaktuaren bitartez, erabilera hau murriztea eta zuzentzea izango dugu helburu.